



Mariápolis 2013
Seu d'Urgell - 1 al 6 agosto

TAILERRAK IGANDEA 4

Tailer hauek senidetasun unibertsalaren aldeko Elkarrizketarekin erlazonaturik daude.

4.1 ELKARRIZKETA ARTEAN. ARTEA ELKARRIZKETAN

Artea komunikazioa da, eta ez dago arterik bi alderdiak emateko eta jasotzeko prest ez badaude. Ikusleak artelanarekin elkarrizketa bat egin behar du. Eta ez da beti erraza edo atsegina izaten elkarrizketan aritzea. Artelanarekin erlazioa sortzeko denbora eta ahalegina behar da. Artearekin elkarrizketa sakona bada, elkartasun artistikoa deitzen diogu.

Arduraduna: Pilar Cabañas

Lekuak: 25

4.2 CHIARA, ELKARRIZKETAREN PROFETA

Fokolareen Mugimenduan sortu den gutzia pertsonen eta instituzioekiko “elkarrizketa=maitasunaren” fruitu dela ikus daiteke. Horretan, Chiara maistra eta profeta izan da Jainko Aitarekin izandako elkarrizketa maitetsuaren ondorioz. Elkarrizketaren profeta bezala berrikusiko dugu Chiararen irudia: bere denborari aurea hartu zion eta 360º-tako elkarrizketari bidea ireki zion emakumea izan zen.

Arduradunak: Soledad Pérez eta Angel Bartol

Lekuak: 50

Hiriari irekia (gazteleraz)

4.3 KULTURA ARTEKO ELKARRIZKETA GAZTEEN ARTEAN

Egunero erabiltzen dugun “kultura artekotasuna”-ri buruzko analisia eta gogoetarako unea izan nahi du tailerrak. Nola bizi dugu? Gai honetan sakondu nahi dugu eta, ahal bada, Europako pluraltasun kultural baten barruan, elkarrizketa eraikitzaile baten bidez, “hesiak” lurrera botatzen hasiko gara.

Arduradunak: Rosaura Delvalle, Paolo Cabras eta Lledó Martín

Lekuak: 25

4.4 ELKARRIZKETA ELIZAKO DOKUMENTUETAN

Elkarrizketaren balio etikoari buruzko gaur egungo Eliza katolikoaren irakaspenak azalduko dira. Baita Elizak eskaini nahi eta eman behar duen elkarrizketaren azalpena. Aurkezpenaren ondoren elkarrizketa saio bat taldeka galdera-sorta baten aurrean, eta azkenik eztabaida denon artean.

Arduraduna: Manuel Bru

Lekuak: 25

4.5 EKONOMIA BERRI BATI BURUZKO ELKARRIZKETA

Gaurko krisi garaian ekonomia egin eta bizitzeko beste parametroen beharra planteatzen da. Arlo honetako esperientzi profesionaletatik hasita, gure jarduera ekonomikoan eragina izan dezakeen portaera batzuk eta ekonomiako era berriak aurkitzera eramango gaituen elkarrizketa bat sortuko dugu.

Arduradunak: Carlos Fernández, Enric Pareta eta Isaías Hernando

Lekuak: 40

Hiriari irekia (gazteleraz)



Mariápolis 2013

Seu d'Urgell - 1 al 6 agosto

4.6 GURASO ETA IRAKASLEAK: KONFRONTAZIOA EDO ELKARRIZKETA? HITZ EGIN DEZAGUN

Familia-eskola arteko erlazioa ez da erraza. Batzuetan ulertu ezina sortzen da gure artean, seme-alaben/ikasleen heziketaren helburuan dugun kolaboratzaileak sentitu beharko ginenean. Hezkuntza-erkidegoko estamentuen artean harreman onak sortzeko jarrerak aurkitzen saiatuko gara, horrela denon artean giro hobea izan dezagun.

Arduradunak: Eva Tomico eta M. Àngels Aisa

Lekuak: 25

4.7 “SINISTEN DUT”: FEDEARI BURUZKO ELKARRIZKETA

Jesusekin elkartzeraz gonbidatzen gaituen fede kristauaren edertasuna erakusten digun “Yo creo” dokumentala ikusi ondoren, dokumentalaren egileekin elkarrizketa egingo da.

Arduradunak: Amparo Gómez, Gemma Bas eta Vicenç Vila

Lekuak: 100

4.8 BARNETASUNA: ATEO ETA ATEOAK EZ DIREN ARTEKO ELKARRIZKETA UNEA.

Pertsonaren dimentsio sakon eta ordezkazina den barnetasuna ulertzen ahaleginduko gara. Ateona eta ateoak ez diren dimentsioa da hori, eta pertsona bakoitzaren bizi-aukeren arabera zaindu beharrekoa dena. Kode horiek aurrean edukiz, elkarrizketa bat egingo da barnetasun hori zaintzeko erari buruz. Konfesio erlijiosoa duten eta konfesorik ez duten pertsonen arteko elkarrizketa nola egin.

Arduraduna: Lucas Cerviño

Lekuak: 25

4.9 JAINKOAREN ESPERIENTZITIK ERLIJIO ARTEKO ELKARRIZKETA.

Erljio guztietan egiten da transzendentziaren esperientzia. Pertsona Jainkoaren presentziaren esperientzia egiteko egina dago. Jainkoarenganako bideak ugariak dira. Jainko-sinismen asko daude eta Jainkoa aurkitzeko era asko. Gutako bakoitzean dugun Jainkoaren bizia eta egiarekin topo egiteak Jainkoarekin eta gizon-emakume guztiekin bat egitera eramaten gaitu.

Arduraduna: José M^a Quintas

Lekuak: 25

4.1 PAISAIKIN ELKARRIZKETAN

Lurraldeak, paisaiak, naturak esaten digunaz jabetu; erabiltzen duen hizkuntzaz ohartu; nola ulertu eta ze motako elkarrizketa erabili behar dugun berarekin ikasi.

Arduraduna: Juan de la Riva

Lekuak: 65

4.11 MUSULMANEN ETA KRISTAUEN ARTEKO ELKARRIZKETA

Vatikanoko II. Kontzilioak musulmanen eta kristauen arteko elkar ulertzea aholkatzen du justizia soziala, ondasun moralak, bakea eta askatasuna defendatzeko eta sustatzeko.



Mariápolis 2013

Seu d'Urgell - 1 al 6 agosto

Azkeneko 50 urtetan kristauek eta musulmanek espiritualtasunaren ardatzaren eratzaile den elkarrizketan oinarritutako ekimen ezberdinak burutu dituzte.

Arduraduna: Francesc-Xavier Marín

Lekuak: 25

4.12 BUDISMOA ETA KRISTAUTASUNA ELKARRIZKETAN

Europa sekularizatzen eta kristautasunetik aldentzen ari denean, budismoak eta ekialdeko beste erlijioek espiritualtasunaren bila dabiltzan mendebaldeko pertsona ugari erakartzen dituzte. Zeintzuk dira budismoaren oinarriko puntuak? Budismoa eta Asiako beste erlijioak bateragarriak al dira kristau federekin? Nola aberats gaitzke elkarri?

Arduraduna: Cinto Busquet

Lekuak: 25

4.13 KATALUNIA-ESPAINIA ARTEKO KRISIA: AUKERA BAT?

Elkarrizketaren ariketa praktikoa. Leku, ideologia eta sentimen ezberdineko pertsonen eginiko hizketaldien bidez, bihotz-bihotzez elkarrizketa praktikoa bat egingo da. Ariketaren hariak bi gai eztabaidatuko ditu: Kataluniako herriaren kontsulta baten posibilitatea eta zein da Katalunia eta Espainia arteko erlazio egokiena (autonomia, federalismoa, independentzia..)?

Arduradunak: Yukiko Yamada eta Josep Bofill

Lekuak: 150

Hiriari irekia (bi hizkuntzetan, itzulpenarekin)

4.12 / 2.14 PERKUSIOA: ERRITMOA EGUNEZ EGUN

Gure gorputzarekin egindako instrumentu asmotsu batzuen bidez armonia lortzea da helburua, horretarako eguneroko erritmo ezberdinak elkarrizketan jarritz.

Arduradunak: Susana Calvo, Betiana Colina eta Alberto Peñafiel

Lekuak: 30

Helduentzat eta batasunaren aldeko neska-mutilentzat

Bi saiotako tailerra: igandean jarraituko du.

4.15 ELKARRIZKETA SAREAN

Sare sozialetan sartzean, elkarrizketan aritzeko era berriak aurkitzen ditugu. Tailerrean parte hartzeko bakoitzak bere gailua eman behar du.

Arduradunak: Bea Gómez, Alba Elías eta María Rodríguez

Lekuak: 25

Helduentzat eta batasunaren aldeko neska-mutilentzat.

4.16 GATAZKEN KONPONKETA

Batez ere enfasi berezia egingo dugu gatazken konponketako metodo batean: Artekiritza

Arduraduna: Pilar Margall

Lekuak: 20



Mariápolis 2013

Seu d'Urgell - 1 al 6 agosto

4.17 / 2.17 ARTE KOMIKOA: RISAYTERAPIA

Ez duzu izan inoiz norbaitek irribarre egin dizunez eguna aldatu dizun sentazioa? Dena grisa ikusten baduzu, munduan alaitasuna falta dela eta beste era bateko umorea posible dela pentsatzen baduzu eta irribarrearen indarrean sinesten baduzu, hau da zure tailerra!

Arduraduna: María Fons

Lekuak: 40

Helduentzat eta batasunaren aldeko neska-mutilentzat

Bi saiotako tailerra: igandean jarraituko du

4.18 ZERGATIK DEITZEN DIOTE AMODIOA?

“Maite-kontua” “zerrenda” “ukitzeko eskubidea” “friendzone”... Zuk zer amodio nahi duzu? Irritsari buruz, erakarren sexualari buruz, maiteminari buruz, eta maitasunari buruz ... hitz egingo da. Proposamen liluragarri bat egingo dizugu ... Benetako eta ahal dena! Ezagutu nahi baduzu eta 15 urte baino gehiago badituzu, etor zaitez.

Arduradunak: Lourdes Illán eta Pablo Roldán

Lekuak: 100